

## Behe kolpea

*Deia*, [1986-02-12].

Ustekabeen iritxi zait kolpe txar hau; ez bada iragarria izan ez dudalako; baina zai ez dagoenak ez du espero, nonbait, eta egitaz jo didanean min eman dit.

Hara gertatua.

Ba da hamabost egun lagun batek esan zidala: "Irakurri al dezu Belokirena?" Nik, ezetz. "Ez dizut telefonoz deitu nahi izan, dagoeneko haserre bizian egongo zinela eta". Ezetz esan nion, ez nuela ezer irakurri; ea noiz irten zen hori *Deia*-n. Hiru egun aurreko alearen bila ibili nintzen etxean, eta ez zegoen; alabari eskatu nion Hondarribian oraindik aurkitzen ote zuen, eta ez. Hurrengo egunean Donostian lagun batekin solasean ari nintzela hitzbidea irten zen eta honek baietz, irakurri zuela, eta ez zela nigatik esana hainbestekoa, hori bai, kazetari horrek berez idazten duela ilun, besterik ez. Egunkarietako xaxaketak gustatzen ez zaizkidanez gero, eta Belokirekin inoiz ez izan ez nuelako ere bai, interesa uxatu nuen. Pasa dira egunak eta artxibo bizia den lagun batek esan zidan hori korreoz bidaliko zidala.

Korreoaz ez dabil aspaldi honetan ongi, baina batez ere ihauteriak direla eta, oraindik okerrago. Eta gaur eguerdian iritxi zait. Egia esan, aspaldi botatako kolpe hark urdailetik behera jo dit; joku garbian jo behar ez den tokian.

Minik ez dit eman nitaz esaten dituenak, horiei haisa erantzungo bait diot Joxe Ramon Belokiri; min eman didana zera da, esateko erabili duen aieruz beteta dirudien iluntasunak, gaur gure artekoak esateko mehatxu keinada mafioso horren moduak. Ni, neu, beneno kolore ilun horretan ohitua ez nagoelako, behar bada.

Galdetzen duenari bakarrik erantzungo diot bada:

1. Esplikatu behar omen nuke zergatik irten nintzen *Deia*-tik: Ez dut inoiz gai honetaz idatzi, Belokik aipatzen dituen arropa tarteko; baina esan dezadan zergatia: euskarari agindutako lekurik eman nahi izan ez ziotelako; anekdotak aparte. Geroztik idatzi dut nik *Deian* pilo bat, eta lagunak gorde ditut. Bestalde, neronek aukeratutako taldetik (kosta zitzaidan kazetari "bihurri" hauek admitituak izatea!), beraz galderak egiteko oso gertu ditu batzu Belokik.

2. *Deia*-ren historiaz gauza bitxi eta ezkutuak izan behar ditu Belokik hainbesteko bihurrikeri/malizi/iseka atseginarekin jarduten ahalegintzeko: orduan zeudenak eta ez zeudenak, eta gaur daudenak eta ez daudenen espiral batetan dionari erantzungo diot: Beloki bera ere deitua izan zela orduan, neronek deitua hain xuxen, eta eman zidan ezezkoa normala iruditu zitzaidala eta ez dudala inoiz aipatu. Bere eskubidea zen, eta nik ez diot Belokiren erabaki harri tonu ilunik jarriko.

3. Neuk bidali eta *Deiak* argitaratu nahi izan ez zuen artikulua "haserre huts baten" errepikapena besterik ez omen zen izan: Egitan esaten diot, neuk une honetan idatzi ditudanak ez direla "haserreak", "garrasiak" baizik. Beloki gazteegia da, behar bada, gutxien esateko, "haserre" politiko batetik "garrasi" politikora dagoen aldeaz ohartzeko.

Eta kito.